


AZALPENA:

Gure lurraldearen etorkizunean oinarritzko zutabe diren aldetik, **Zientzia eta Berrikuntzarekin loturiko ekimenak sustatzea** du helburu proiektuak. Lurraren sorreratik hasi eta harreman eta ezagutza eta gure ikaste gaitasuna sustatzea helburu duten jardunbideen alde apustu egitera honako elementu hauek bultzatu edo behartzen gaituzte: lur eskasiak, gazteek lana aurkitzeko ekintzak sustatzeko beharrak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko zentrozen eta unibertsitateen kontzentrazioak, egunetik egunera lehiakorragoa den merkatuan gure industrietan berrikuntza gaitasuna sustatzeko duten beharrak...

HELBURUAK: B-2 helburuan du bereziki eragina: *Donostia hiri zientifiko eta teknologiko modura prestatu alor berritzaileen garapena sustatuz.*

DESKRIPZIOA:

- **Ikerketa eta berrikuntza ekintzetarako** (Oinarritzko Ikerketa, I+G+B...) **egoitzen garapena**
- **Zuatzuko eta Miramongo Teknologia Elkartegien handitzea**
- **Teknologia Berrien alorrean Berrikuntzarako foroa.** I+G+Bekin loturiko zentroak elkartzeko lekua, berrikuntza eta berrikuntza sare lokal bat sortzea (berrikuntzan oinarritutako kulturaren bidez urrutiko alorretan txertatzea ere sustatuko da) helburu duten ekimenak bultzatuko dira
- **Harreman eta Ezagutza sistemaren Garapena**
 - **Ezagutza Sare bat** sortu diaspora eta berrikuntzaren sare lokala osatzen duten ikerlari, teknikari eta zientzialarien arteko sinergien sorrera bultzatzeko.
 - Ikerketa abangoardian pertsona eta enpresa berritzaileen esperientzien berri emango duen **argitalpen elektroniko** bat sortu.
 - Hiriaren irudia eta markoa erabiliz akordioak formalizatzea (enpresak-zentro teknologikoak-herri instituzioak) **proiektu prototipoak garatzeko.**
 - Donostiako **Prestakuntza Instituzioekin akordio bat egitea** beraien arteko eta berrikuntza eta ikerketa sistemarekin lankidetzan sustatze aldera. **Hezkuntza, garapen bidean dauden jardueretara bideratzea da helburua.**
 - **Zientzialari eta Ikerlariarentzako Harrera Sistema** bat sortzea (etxea, lana, heziketa...).



- Berrikuntza eta ikerketarekin loturiko zentroetako (musika , kirol, kultura, gastronomia jarduerak...) langileen artean **topaketa sozialak** sustatzea diziplina ezberdinetan lan egiten dutenen arteko harreman eta ezagutza maila sendotzeko
 - Ikerlari eta zientzialarien **Sormen** gaitasuna sustatzeko ekintzak bultzatu
 - Ezagutza zientifiko eta humanitateen arteko eztabaida eta harremanak sendotzea
- **Plan Ekintzailea** (kultura ekintzailearen eta berrikuntzaren sustapena)
 - Lurraren sustapen publikoa jarduera berritzaileak jartzeko.
 - Ezarri diren espezializazio alorrekin (IKT, Nanozientziak, Mikroelektronika, Robotika...) loturik dauden hirugarren mailako ekintzen garapena sustatu (Masterrak, Mintegiak, Kongresuak...).
 - Inkubazio espezializatua sortzea .
 - Ideia berritzaileekin loturiko Sarien sorrera sustatu eta existitzen direnak bultzatu
 - Enpresak sortzeko prozesua erraztu